

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR AGIRIAK

80-I-25

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Urtarrilaren 25ean, arratsaldeko laurretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. L. Alvarez Enparantza, J. A. Arana, M. Atxaga, F. de Barrenengoa, I. Beobide, J. M. Etxaburu, J. A. Etxebarria, P. Goenaga, I. Goikoetxea, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, F. Mendizabal, J. A. Mujika, K. Rotaetxe, P. Sancristobal, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

J. M. Lojendio euskaltzain oso zenaren hil berria eman du L. Villasante jaunak. Manuel de la Sota eta Jesús Elozegi euskaltzain urgazleen hil berria, J. Haritschelhar eta J. San Martinek eman dute beraien lan eta merezimenduak aipatuz.

Azken batzarreko agiria irakurri ondoan, Alfabetoko letren izenei buruz bertan jasotakoari ohar bat egin dio X. Kintanak. Berak egindako txostena, alegia, gero A. Zatarain jaunaren ohar batzukin aurkeztua izan zela, nahiz puntu guzietan ez batera etorri.

GOIZEKO BILKUREN BERRI

Euskera aldizkariaren batzordetik, azpibatzorde bat izendatu da. Datozen lan eta txostenen balio eta garrantzia aztertzea izango da, batez ere, bere eginkizun nagusia, batzarrean irakurtzea eta gero argitaratzea merezi duten ala ez erabakitzeko. A. Irigoyen, P. Lafitte eta L. Villasante izendatu dira.

Alfabetatze-euskalduntze lantaldea Euskaltzaindiak sortu zuen eta bere gerizpean agertu da orain arte. Gaur egun duen eradura eta garrantzia kontuan izanik, E. K. N. eta lau Diputazioen ardurapean ofizialtzea erabaki zen Foruan. Koordinakundeekin batera erakunde horiekin ofizialki negoziaketa egiteko, Euskaltzaindiaren Alfabetatze-euskalduntze batzordekoen artetik, azpibatzorde bat izendatzen da, honako hauekin: J. San Martin Jagon Sailburua, eta E. Knörr, P. Uribarren eta J. M. Satrustegi.

Arautegia. Foruan ontzat emandako bidetik, arautegia aldatu beharra ikusten da. Alde batetik, laguntzaile maila berri bat sortu nahi dugu, batzorde eta lan berezietarako lagungarri. Lanak eskatzen duen iraupenaz mugatua izango da izendapen hau.

Arautegiak, beste alde, badu beste hutsune bat: Euskaltzaindia, ondasun errejistratze eta kreditoz zorpetzeko gai dela adieraziko duen agerpena falta du. Diru kontuen begirale bat ere behar beharrezkoa du. Legegizonen esku uzten da idazkaritzak aurkeztu duen idazkiaren orraztapena.

DAGOZKIEN BATZORDEEN BILERA

Irakaslego batzordearen izenean X. Mendiguren mintzatu da. Euskaltzaindiko tituluen programaketa berria aurkeztu du. Aurtengoz ez da aldaketarik egingo.

Administratzaile izendegia zertan den kontu ematen da. Hiztegi lanean jarraitzen dute. Batzordeari birmoldaketa bat eginaz, hain zuzen J. L. Lizundiak batzorde honen idazkaritza uzten du, F. Mendizabalek, kargua hartuz.

Herri Izendegi batzordea ere bildu zen Urtarrilaren 11an, Gasteizen. Udal Izendegiaren jarraipena egingo da orain, herri eta herrixka guzietan, hala nola auzo nagusien zerrendak aztertuz. Lehen zerrenda egitea erabaki zen, eskualde hauek harturik: Araban, Ekialdeko Lautada; Bizkaian, Busturialdea; Gipuzkoan, Urolaldea eta Nafarroan, Bidasoaldea, Ultzama eta bere inguruko sei ibarrak.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak aipatu ditu J. San Martinek. Gomita bialduko zaien hizkuntzalarien zerrenda irakurri du, halaber, J. A. Aranek.

TXOSTENAK

Euskaltzaindiaren hileroko batzarretara ekarriko diren txostenen programaketa aipatu du J. L. Lizundiak. Urgazle berriei txostenak eskatzeaz beste alde, bertsolaritza, itzultzaileen eskola, euskal idazki zaharren aurkezpenak, etab., osatu dezaketeko urteko txostenen kopurua.

Arrasateko batzarraren jarraipenez, Apirilaren 10ean, bazko ostegunez, egiteko da Bidasoa Bortzirietako batean gramatika txostengileekin bilera bat. Ikerlanaren eten gabeko ekintza finkatu nahi da horrela.

J. San Martinek irakurri du, azkenekotz, bertsolarien azken txapelketa nagusiaz batzordeak prestatu duen txostena.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.^a SATRUSTEGI